

# Amatasun osasuntsua lanean

*Eskubidea, izatetik betetzera*



1

## **Haurdunaldia eta edoskitzaro naturala**

*Langile gehienek normaltasunez igarotzen dituzte amatasun garai hauek, baina laneko baldintza batzuek eragina izan dezakete haien osasunean, haurdunaldian edo haurrengan.*



2

## **Amatasunerako kaltegarriak izaten ahal diren lan baldintzak**

- Jarrera behartuak edo deserosoak, luzaroan zutik edo eserita egotea, zama astunak altxatzea edo pertsonak mugitzea, muturreko tenperaturak...
- Gauaz eta txandaka lan egitea, lanaldi luzeak, lan zama handia, eskakizun emozionalak, laneko indarkeria...
- Hauekiko esposizioa: gai kimiko arriskutsuak, erradiazioak, zarata handia, bibrazioak edota eragile biologikoak.



3

## **Gogoan izan legeriak babesten zaituela eta eskubidea duzula...**

- Zure amatasunari kalte egiten ez dioten lan baldintzak izateko.
- Zure enpresak informa zaitzan zure lanpostuan izaten ahal diren amatasunerako arriskuez eta horiek saihesteko prebentzio neurriez.